

ATZERRITAR JATORRIA DUTEN IKASLEEN ESKOLATZAEAZ

Ikastolok argi dugu: atzerriko jatorria duten ikasleen eskolatzeari herri apustu bat da, eta, herri bezala, gaur egungo egoera ondo aztertu eta gero, hezkuntza eragile guztiok irtenbide integralak adostu behar ditugu segregazioaren arazoari aurre egiteko; hau da, hezkuntza eragile guztiok konpromisoa izan behar dugu horretan eta ikastolok, geure erantzukizunak betetzeko prest egoteaz gainera, gurekin nahi ditugu. Segregazioa arazoa delako guretzat ere, eta geuk ere bukatu nahi dugu bazterketa hori.

Orain dela 40 urte ikastolok integrazio bidean apustu egin genuen euskalduntze prozesuan 2 urteko gelak irekitzeari, nahiz eta horrek kostu handiak suposatu zirela bere finantzazioan. Eta orain ere politika bereziak aurreikusita dauzkagu etorkin jatorria duten ikasleak eskolarizatzeko bidean (10 urte baino gehiago gure plana diseinatuta eta martxan dugularik).

Dena den, ezin dugu ahaztu hezkuntza aukera inklusiboak ikasleen egoera desberdinak hartu behar dituela kontuan, ez bakarrik jatorri atzerriko duen ikasleena: beharrezko bereziko ikasleena, genero desberdintasuna, sexuarena, gizarte desberdintasuna, erlijioena ..., eskolak apendizaiarako beharrezko-aniztasunari arretaz erantzun behar baitio.

Noski, ezin ditugu begiak itxi egungo errealitatearen aurrean: atzerriko jatorria duten ikasle gehienak eskola publikoetan eskolatzen dira, eta horrek ez du laguntzen eskolatzeko hori modu inklusibo eta orekatuan eta aniztasuna ziurtatuz izan dadin.

Onar genezake baldintza ekonomikoak edo gure hezkuntza proiektua ez izatea erakargarri jatorri horretako ikasleak ikastolatan matrikulatzeko. Baina ikastolatan argi daukagu familien egoera ekonomikoa sekula ez dela arazoia izango gure ikastolatan ez matrikulatzeko: kooperatiba gara, eta kooperatiba garenez, beti aurkituko ditugu irtenbideak. Argi

daukagu, baita ere, modu inklusiboan eta aniztasuna errespetatuz eskolatzeak gure hezkuntza proiektuak aberasten dituela, eta, argi eta garbi esan behar dugu gure herrian euskararen normalizazioa erdiesteko ezinbestean behar ditugula atzerriko jatorria duten ikasleak.

Aitortu behar dugu, beste sareetan bezala (publikoa eta Kristau Eskola), gure ikastoletan ere ez dela egoera homogeen bat ematen; zenbait ikastolatan atzerriko jatorria duten ikasleen ehuneko azpimarratzekoa ematen da, beste batzuetan, aldiz, oso txikia da presentzia hori. Eta gure azken ikerketaren arabera, kuotak ezin dira erabili esplikatzen zergatik dagoen ikastola batzuetan besteetan baino atzerriko jatorria duten ikasleen presentzia handiagoa.

Dena den, Eskola Kontseiluaren azken txostenean jasotzen den bezala, egoera hori sare guztietan ematen da, eta orokorrean portzentajerik handiena sare publikoan eman arren, ez du esan nahi sare horretan ikasle horiek modu orekatuan banatzen direla; aitzitik, sare publikoko ikastetxe batzuetan portzentaje oso handiak daude eta beste batzuetan oso txikiak, eta desoreka horiek udalerri bereko ikastetxe publikoen artean ere ematen dira.

Gainera, hizkuntza ereduak nabarmen eragiten dute desoreka honetan, kanpotik datozen ikasleen familia askok hizkuntza eta kultura hegemonikoen hizkuntza eredura jotzen baitute. Eta horrela, euskara da zenbait herritan, gurean ez matrikulatzeko arrazoi nagusienetako bat. Beraz, txosten honetan proposatzen ditugun aldaketei murgiltze eredu ezartzea gehituta, aukera paregabea irekiko litzateke gure hizkuntzaren normalizazioan beste urrats bat egiteko.

Egoera honen aurrera galdetu behar dugu nola iritsi garen egoera honetara, zeintzuk diren desoreka honen arrazoiak.

1.a) Mota askotako arrazoiak daude gure ustez. Alde batetik ikasle hauen eskolatzeko prozesua dugu. Atzerriko jatorria duten ikasleak bereziki **matrikulazio garaitik kanpo eskolatzeko dira.**

Matrikulazio garaitik kanpo datozen ikasleak ezin dira zuzenean matrikulatu ikastetxe batean edo bestean; Eusko Jaurlaritzak erabakitzen du non matrikulatuko diren, Eskolaratze Batzordeen bidez (Hezkuntza Saileko organo bat da, guztiz teknikoa). Eta ia beti, dagokion herrian arriskuan dagoen ikastetxera bideratzen du ikaslea.

Horrek esplikatzen du, hein batean, zergatik ikastolak ez garen gure matrikulazio kopuruari legezkiokkeen atzerritar jatorriko ikasleen zenbakietara iristen. Baina, era berean, arrazoi horrek berak esplikatzen du zenbait kasutan, zenbait herritan zergatik dauden titularitate publikoko ikastetxeetan beraietan ere atzerritar jatorriko ikasle kopuruaren desoreka handiak, Euskadiko Eskola Kontseiluak ohartarazi zuen bezala.

Horregatik, Eskolatze Batzordeek ezin dute jarraitu teknikarien esku soilik. Hezkuntza eragileok ere egon behar dugu, guztiok egonda, argi jakingo dugulako zein den bakoitzaren jarrera gai honetan. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu urrats hori egin dezan, eta, bide batez, publiko egin ditzan matrikulazio epea kanpo eskolatu dituen atzerritar jatorriko ikasleen gaineko datuak (kopuruak, adina, zein sareetara bideratu dituen ...).

Eskolatze batzordeak hezkuntza eragilez osatuta badago eta beraien irizpide nagusi bezala sareen arteko oreka ezartzen bada, gure ustez aldaketa nabarmen bat egongo da, eta aurrerapauso bat emango da ere eskolatze modu inklusibo eta orekatuan eta aniztasuna ziurtatua izan dadin.

Aurrekoekin batera, sakoneko arrazoi sozioekonomikoak ere badira gaur eguneko halako desoreka egoera azaltzen dutenak, non, ikastetxe batzuetan –publikoak gehienak– estatus sozioekonomiko eta kultural apala duten edo/eta atzerritarrak diren ikasleen proportzioa handiagoa den. Gure iritziz desoreka hori azaltzeko beste arrazoi sozioekonomiko hauek ere badaude. Horrela;

- Urbanismoa: Eskoletan bezala, herri eta hiri handietan, desoreka handia dago auzoetan familia etorkinen eta baliabide ekonomiko urrikoen kopuruetan.
- Ikastetxeen hezkuntza-proiektuan hizkuntza ereduak eta erlijioak duten pisua
- Zenbait hezkuntza eredu –gurea esate baterako, Euskal Herria eta euskal kultura erdigunean kokatzen dugulako– ez izatea erakargarri jatorri horretako ikasleentzat, gure inguruan urteetan zehar eraiki den “errelatoa” dela eta.
- Kultura eta hizkuntza hegemonikoaren eragina.
- Ekonomikoak: sare kontzertatuen kuotak kobratzen diren neurrian, familia batzuentzat honek arazo bat suposatzen du.
- Baliabideak: Administrazioak ez ditu jartzen baliabide berdinak itunpeko sarean edo administrazio sarean eskolarizatzen diren etorkinen ikasleen egokitzapena bideratzeko.

Ezin dugu ahaztu atzerriko jatorria duten ikasleek gizarteratzeko eginbidean, hizkuntza ereduaren sistema hautespen eta baztertze bidea bihurtu izan dela; beraz segregazioei aurre egiteko hizkuntza ereduak gainditu behar dira.

1.b) **Matrikulazio garaia** ere dugu aztergai nagusi. Eremu honetako oinarrizko eskubideen erabilerarekin harremanetan dauden neurrietan zentratuko gara, hau da, eskolatzerako orduan herritar guztien aukera berdintasuna (baldintza berdinak bermatuz) eta hezkuntza eskaintzaren barruan ikastetxea hautatzeko eskubidea.

Gaur egun, gizartearen hainbat arlotan (osasun-zerbitzuetan, esate baterako) hautatzeko gaitasuna aldarrikatzen da. Hezkuntza-alorrean ere, prozesu hau eman egiten da, baina “ezkutuan” mantendu nahi dugu edo/eta “norberaren alde” jokaturik antolatu.

Beraz, bi eskubide horien bermea eskaturik, euskal herritarrei erantzukizunez joka dezaten argibidea eman behar zaie:

- Alde batetik ikastetxeek ematen duten argibidea egongo da, beti ere, ikastetxe bakoitzak egiten duena goraipatzeko arriskua egonik. Ematen den argibidea kontrastatua eta kontrolatua izan dadin eskatu ahal izan arren, arriskua beti egongo da.
- “Lurralde eskolatze guneak” sortu, baina batez ere herri anglosaxoietan erabiltzen den metodologiari deritzogu egoki: gune independenteak eta eskolen funtzionamenduari buruzko adierazle objektiboak argitaratuz, gune hauetan ematen den informazio objektiboaren adibide ikuskaritzaren txostenak edo kanpo ebaluazioen emaitzak (publikoak dira hainbat herri anglosaxoietan) dira

Behin ikasle hauek ikastoletara etortzea lortuta, lortu behar dugu bertan geratzea. Lehen aipatutako neurriek ikasle hauen lehen matrikulazioa sareen artean modu orekatuan egitea lortu dezakete. Baina egun ere kolektibo horretako ikasleek, gainontzeko guztiek bezala, beste ikastetxe batzuetara joateko aukera daukate... beraz

2.a) **zer egin ikastoletatik alde ez egiteko**. Gure proposamena osatzeko, eskualdeko bileretan jasotako datu eta ekarpenekin batera, aintzat hartu dugu euren herri eta auzoetan atzeritar jatorriko ikasleen gehiengoa matrikulatuta dituzten ikastolen esperientziak, gure datu orokorrak legozkigukeenak baino baxuagoak diren arren, izan badirelako ehuneko handiagoak dituzten ikastolak.

Horretarako proposatzen dugu: Ikastola bakoitzak bere harrera plana izan behar du. Aniztasunaren integrazioa ikastolaren jardueraren ildo da, beharizan bereziko ikasleek ikastola guztietan tokia izan behar dutelarik.

Harrera planean ikasle berria jasotzeko ekimena jaso behar da, eta honek lantze pedagogikoa ekartzen du eskolaldiaren hasieran, ikastolak dituen balioen inguruan, bai ikaslearentzat bai hezkuntza komunitate osoarentzat. Harrera planak

espazioa eskaini behar du ikasle berriaren garapen pertsonal, kultural eta sozialerako, eskolak dituen baliabideen bidez. Harrera Planaren helburua bere testuinguru soziokulturaleko eskola-aktore guztien integrazio plurala da. Azken helburua ikaslea ez ikasgelan soilik, baizik eta eskola dinamikan integratzea da eta horretarako konfiantza eman behar diegu gure ikastoletara iristen diren atzerriko jatorria duten ikasleei... belarrira hitz goxoak xuxurlatuz. Hasieran bere hizkuntzan, euskara eragozpen bat bezala ez dezaten sentitu, eta gero gure hizkuntzan.

2,b) **Baldintza ekonomikoak** askotan aipatzen dira arrazoi bezala jatorri horretako ikasleak Ikastoletan ez matrikulatzeko (edo ikastolatik alde egiteko). Eta bai itunpeko ikastetxeetan kuotak kobratzen ditugu. Eskola kontseiluak bere azken txostenean azaltzen duen bezala Administrazioak ikastetxe hauen gastuen %66 finantzatzen du, eta gainontzeko guztia gurasoek ordaintzen dute (txosten horren arabera hezkuntza gastuen %21a familiek ordaintzen dute). Horren aurrean ezin dugu asko esan, baina Ikastoletan argi daukagu familien egoera ekonomikoa sekula ez dela arrazoa izango gure ikastoletan ez matrikulatzeko: kooperatiba gara, eta kooperatiba garenez, beti aurkituko ditugu irtenbideak. Gaur egun hainbat ikastolak ezarrita daukate beka sistema bat ordaindu ezin duten familientzat eta aurrekontuetan jasota dago. Eta berariazko beka sistema ez duten Ikastoletan, isileko bat dago, hainbat alditan erabili izan dena ikasleek Ikastolan jarrai dezaten.

Dena den, kontziente gara gai hau kontu sentibera dela familientzat, eta badakigu, batzuetan, ez matrikulatzea erabakitzen dutenek, edo ikastola arrazoi ekonomikoengatik uztea erabakitzen dutenek, arrazoi hau ez dutela aipatzen. Horregatik hurrengo ezaugarriak dituen beka eredu bat bultzatu eta ezarriko dugu ikastoletan; oso ezaguna izan

behar da ikastolaren ingurune geografikoan, jendeak (behar dutenek) sistema horretara jotzeko posible den naturaltasun eta diskrezio handienarekin. Ez dadila izan eta ezta iruditu ere karitatean oinarritutako sistema bat dela; objektibatua egon behar da, ikastolako urteroko aurrekontuetan aurrez ikusita egon behar da, aukera ezberdinak eskaini behar dizkie ordaindu ezin duten familiei; hainbatek zerbaitetan "laguntzea" nahiago du ordainketatik salbuetsita egotea baino.

Dena den, etengabe aipatzen ari garen ikasleen kontzentrazio handiak murriztu nahi baditugu, ezinbestean eskolatuta daudenen mugikortasun efektua mugatu behar dugu, eta horretarako aurkeztu ditugun neurriez gain, Administrazioak, behar besteko baliabideen ekarpena eginez, benetako doakotasuna bermatu behar du ikastetxe guztietan, jatorrizko baldintza ekonomikoek eragotzi ez dezaten ezein ikasleren sarrera ezein ikastetxetan.

Gure ustez segregazioaren arazoa ez da bakarrik hezkuntzarena eta horregatik ikastoletako harrera planak aipatzen ditugun bezala, era berean herri eta auzoetan administrazioek bultzatutako harrera plan integralak egon behar direla pentsatzen dugu. Horrela egokia izango litzateke eskola, eskolaz kanpoko jardueretan eta aisialdian parte hartzen duten eragileek elkarlanean aritzea atzerritar jatorria duen ikaslegoarekin. Esate baterako, jatorri ezberdinetako ikasleak dauden testuinguruetan, beraien ama-hizkuntzak sustatzen dituzten ekimenak, ikastetxe guztien artean antolatzea interesgarria izango litzateke.

Administrazioak, arreta eman behar die profil sozioekonomiko baxuena duten eta bazterkeria arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeei. Ikastetxe hauek beharrezko baliabideak jasoko dituzte, egitasmo bereziak abiaraziko dituzte eta urte anitzeko planak izango dituzte egoerari buelta eman ahal izateko.

Irizpide hauetan oinarriturik, edozein ikastetxek, dagoen eskola eremuan dagoela, edozein beharizan bereziko ikasleen eskolatzean bere matrikulazio-tasaren neurriko konpromisoa hartu behar du, eta horrela ez balitz, neurri administratibo zuzentzaileak aurreikusita egon beharko dira. Beraz, hezkuntza-itunak eman edo berriztatzea eta beste laguntza publiko batzuk lortzea baldintzatuta egongo da.

Orain dela 12 urte ikastolok etorkin jatorria duten ikasleen integrazioa bideratzeko ikerketa eta proposamena egin zion Hezkuntza Sailari, geroztik ez dugu inolako erantzunik izan eta Administrazioak ezartzen dituen baliabideak gero eta urriagoak dira. Gure ustez horretarako bideratzen den diru kopurua biderkatu egin beharko luke, eta urteko 20 milioitik gora inbertitu beharko lituzke helburu honekin hezkuntza sistema osoan.

Amaitzeko, gai honek, beroni lotutako zeharkako beste gai batzuek, eta aipatu ez ditugun beste batzuek agerian uzten dute hezkuntza sistema osotasunean arautuko duen lege bat egiteko premia.